

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

**Foru Gobernu Kontseiluak 2019ko irailaren 10eko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena**

– **Foru dekretua:**

#### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 42/2019 Foru Dekretua, irailaren 10ekoa. Onespena ematea abenduaren 14ko 155/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Arabako Hirigintza Batzordearen osaera aldatzeari.

– **Erabakiak:**

#### EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 552/2019 Erabakia, irailaren 10ekoa. Onespena ematea Araban berrikuntza sustatzeko laguntza lerroaren (Araba Berritzaile 2019-Elkarteak) ebazpenari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 553/2019 Erabakia, irailaren 10ekoa. Onespena ematea Araban berrikuntza sustatzeko laguntza lerroaren (Araba Berritzaile 2019-Enpresak) ebazpenari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 554/2019 Erabakia, irailaren 10ekoa. Onespena ematea Araban berrikuntza sustatzeko laguntza lerroaren (Araba Berritzaile 2019-Autonomoak) ebazpenari.

#### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 555/2019 Erabakia, irailaren 10ekoa. Ezeztatzea 125.000 euroko zenbatekoa (BEZa barne), Arabako Foru Aldundia gas natural kanalizatuz hornitzeko kontraturako maiatzaren 13ko 311/2019 Erabakiaren bidez onetsi zen gehiegizko kreditu esleipenari dagokiona.

Foru Gobernu Kontseiluaren 556/2019 Erabakia, irailaren 10ekoa. Ezeztatzea 80.000 euroko zenbatekoa (BEZa barne), urtarrilaren 29ko 42/2019 Erabakiaren bidez onetsitako gehiegizko kreditu esleipenari dagokiona. Kreditu esleipen hori egin zen automoziorako A gasolioa hornitze aldera Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 19ko 516/2017 Erabakiaren bidez Repsol Comercial de Productos Petrolíferos SA enpresari esleitutako kontraturako.

Foru Gobernu Kontseiluaren 557/2019 Erabakia, irailaren 10ekoa. Ezeztatzea 31.090,60 euroko kreditu esleipena (BEZa barne). Kreditu esleipen hori onetsi zen eraikinetako suteen aurkako babes ekipoen prebentzioko mantentze eta mantentze zuzentzailerako prozedura irekia finantzatzeko, zeina maiatzaren 13ko 310/2019 Erabakiaren bidez aldatutako martxoaren 12ko 180/2019 Erabakiaren bidez esleitu baitzen.

Foru Gobernu Kontseiluaren 558/2019 Erabakia, irailaren 10ekoa. Onespena ematea 2019ko ekitaldian turismoa sustatzeko jarduerak egiteko kuadrilletarako laguntza lerroaren ebazpenari.

#### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 559/2019 Erabakia, irailaren 10ekoa. Behin betiko onespena ematea Moredako udalerriko ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako lurzorua eta hiri ondasun higiezinaren balioztapen txostenari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 560/2019 Erabakia, irailaren 10ekoa. Behin betiko onestea Oiongo udalerrirako egindako ondasun higiezinaren gaineko zergari lotuta dagoen hiri lurzorua mugaketa.

#### NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 561/2019 Erabakia. Onestea Kontseiluaren otsailaren 19ko 8/2019 Foru Dekretuak onetsitako basogintzarako laguntzen ebazpen partziala, neurri hauei dagokienez: M04.3 "Basogintza sektorea garatu, modernizatu eta egokitzeko azpiegiturretan inbertitzea" jabetza publikoko basoetan.

Foru Gobernu Kontseiluaren 562/2019 Erabakia. Onestea Kontseiluaren otsailaren 19ko 8/2019 Foru Dekretuak onetsitako basogintzarako laguntzen ebazpen partziala, neurri hauei dagokienez: M08.3 neurria "Suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek basoetan kalteak eragitea prebenitzea" eta M08.1 neurria "Baso sartzeta eta baso azalerak sortzea" jabetza publikoko basoetan.